## LOIOLAKO SANTUTEGIA - SANTUARIO DE LOIOLA




Austriako Mariana erreginak, Felipe V.a erregearen alargunak sustatu zuen 1682an, Carlo Fontana arkitektoak proiektatu zuen eta eraikitze lanak 1688an hasi zituzten. Erdian, eliza dago, albo banatan bi hegal soil-soilak dituela, eliz atari churriguereskoarekin kontraste eginez; oinplanoz zirkularra da eta estiloz, berriz, barrokoa. Obrak hasi eta berrogeita hamar urtera inauguratu zuten, 1738an. Kupulak 65 metro ditu, linterna eta errematezko gurutze eta guzti. Aldare nagusia Ignacio de Ibero azpeitiarrak diseinatu zuen eta 1750 eta 1757 artean egin zuten.

Auspiciado en 1682 por la reina Mariana de Austria, viuda de Felipe V, fue proyectado por el arquitecto Carlo Fontana, comenzándose las obras en 1688. En el centro, flanqueada por dos alas muy sobrias en contraste con el pórtico churrigueresco, se encuentra la iglesia, de planta circular y estilo barroco. Fue inaugurada en 1738, cincuenta años después del comienzo de las obras. La cúpula alcanza los 65 con la linterna y la cruz de remate. El altar mayor fue realizado entre 1750 y 1757, bajo diseño del azpeitiarra Ignacio de Ibero.

## SAN IGNAZIOREN JAIOTETXEA - CASA NATAL DE SAN IGNACIO




Santutegiaren harresien barruan dago. Loiolako Beltrán Yañezek eraiki zuen, XIV. mendean, oinaztarren eta ganboatarren arteko gerren garaian. 1456an, dorrea moztu egin zioten eta jabea, Loiolako Juan Pérez (San Ignazioren aitona) erbesteratu egin zuten Ximena de la Fronterara. Dorrea 1461ean eraiki zuten berriro, baina, erregearen aginduz, ez harriz, adreiluz baizik, eta dorrearen harresiak altueraz txikiagoak egin zituzten gainera. Eraikina Iraurgi bailaran hain hedatua dagoen arte mudejarraren eredu bikaina da, eta bertan jaio eta hezi zen Loiolako Ignazio.

Está situada dentro de los muros del santuario. Sus orígenes se remontan al siglo XIV. Fue construida por Beltrán Yañez de Loyola durante las guerras entre Oñacinos y Gamboinos. En 1456 fue desmochada siendo desterrado su propietario, Juan Pérez de Loyola (abuelo de San Ignacio), a Ximena de la Frontera. La torre fue rehecha en 1461 pero, por mandato real, ya no con piedra sino con ladrillo, siendo rebajada además la altura de sus muros. El edificio, donde nació y se crió Iñigo de Loyola, es una bella muestra del arte mudéjar tan extendido en el valle de Iraurgui.

## OLATZEKO AMA BIRJINAREN BASELIZA - ERMITA DE Nª Sª DE OLATZ




Azpeitia eta Loiolaren artean dago, erdibidean. XIII. mendearen amaiera eta XIV. mendearen hasiera artean eraiki zuten. Iraganean, oso lotua egon zen loiolatarrekin, haiek baselizaren ugazabak baitziren Azpeitia hiribilduko alkatearekin batera. Baselizan, Olatzeko Ama Birjinaren taila polikromo bat dago, balio handikoa, eta, esaten denez, San Ignaziok asko miresten zuen. Datu bitxi bat: baseliza honetan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Partikularrak XVIII. mendearen hasiera arte.

Está situada a medio camino entre Azpeitia y Loyola. Data de finales del siglo XIII, principios del XIV. En el pasado estuvo muy relacionada con los Loyola, ya que estos fueron copatronos de la ermita junto al alcalde de la villa de Azpeitia. Esta guarda una valiosa talla gótica policromada de Nuestra Señora de Olatz, por la que se dice, San Ignacio sentía una especial devoción. Un dato curioso es que en esta ermita se reunieron las Juntas Particulares de Gipuzkoa hasta principios del siglo XVIII.




## UDALETXEA - CASA CONSISTORIAL




Lehen, udala beste eraikin batean egon zen, "Kontzeju plazatxoan", eta eraikina oraindik kontserbatzen da; gaur egun, berriz, Lázaro de Laincerak eginiko eraikinean dago. Egungo udaletxea 1711n eraiki zuten, agustindarren komentutarako, eta, komentu gisa, 1840 arte erabili zen, harik eta Mendizabalen Desamortizazioaren ondorioz fraideek eraikina utzi behar izan zuten arte, eta, 1842an, Estatuak eraikina Udalari transferitu zioen, eraikinaren zati bat irakaskuntzarako erabiltzeko baldintzarekin. Udaletxe barruan, oraindik gordetzen da komentu garaian eliza izan zena; gaur, desakralizatua eta kulturagune bihurtua dago.

En el pasado, el Ayuntamiento estuvo ubicado en otro edificio situado y aún conservado en la conocida como "Plazuela del Concejo". El actual, obra de Lázaro de Lainceria, fue construido en 1711 como convento de Agustinos, función que desempeñó hasta 1840, año en el que fue abandonado por los frailes con motivo de la Desamortización de Mendizabal. En 1842, el Estado transfería el edificio al Ayuntamiento con la condición de destinar una parte a centro de enseñanza. Su interior esconde lo que en el pasado fue la iglesia del convento, hoy desacralizada y convertida en centro cultural.

## ALTUNA ETXEA - CASA ALTUNA




Altunatarrek eraiki zuten XVI. mendean; altunatarrena Azpeitiko leinu zaharrenetako bat da, leinu etxea Urrestilla auzoan duena. Eraikina harlanduz egina dago bigarren solairuraino; hortik gora Azpeitia eta Azkoitiko eraikin zaharretan hain ohikoa den egitura mudejar tipikoaz eraikita dago: adreiluz eginiko erronboez eta zerra hortzez eginiko konposizio bat dago.

Fue construida en el siglo XVI por los Altuna, uno de los linajes más antiguos de Azpeitia, con casa solar en el barrio de Urrestilla. El edificio es de piedra sillar hasta el segundo piso donde, mediante una composición de rombos y dientes de sierra realizados en ladrillo, muestra la típica estructura mudéjar tan común en antiguas edificaciones de Azpeitia y Azkoitia.

## ZEZEN PLAZA - PLAZA DE TOROS




Aurrez egon zen beste baten ordez jarri zen eta 1903an inauguratu zuten. Plaza honetan izaten diren korrida guztietan, hileta "zortziko" bat abesten da hirugarren zezena akabatu eta gero. Zortzikoa abesten da interpretatzen da Jose Ventura Laca banderillero debarraren oroipenez. Banderilleroa Azpeitiko garai bateko zezen plazan hil zen 1841eko abuztuaren 2an.

Azpeitiko zezen plaza ezaguna da, bertan herri kiroletako proba asko egiten direlako.

Fue inaugurada en 1903, reemplazando a otra anterior. En todas las corridas celebradas en ella se interpreta un "zortziko" fúnebre tras la muerte del tercer toro. La interpretación se realiza en recuerdo del banderillero debarra José Ventura Laca, muerto en el antiguo coso taurino de Azpeitia el 2 de agosto de 1841.

La plaza de toros de Azpeitia es también reconocida por la realización en ella de numerosas pruebas de deporte rural vasco.

## SOREASUKO SAN SEBASTIAN ELIZA
## IGLESIA DE S. SEBASTIÁN DE SOREASU




Badirudi tenplarioen garaian eraiki zutela eta XVI eta XVIII. mendeen artean aldaketa handiak egin zizkiotela; dorrea baino ez zen geratu, baina oso itxuraldatuta. Jatorrizko portikoa 1771n kendu eta aurpegi berria jarri zioten, Ventura Rodríguezek diseinatu eta Francisco Iberok egina.

Elizak zortzi kapera ditu. Kaperen artean, Bakarnerena nabarmendu behar da: Errenazimenduko harribitxia da eta, bertan, Nicolás Sáez de Elolaren hilobia dago, Pizarro Peruko konkistatzailearen laguna. Azpimarratzekoak dira, baita ere, aldare nagusiko erretaula barrokoa eta pontea, Loiolako Ignazio bataiatu zenekoa hain zuzen.

Al parecer de origen templario, entre los siglos XVI y XVIII sufrió grandes reformas, conservándose sólo la antigua torre, aunque muy transformada. El pórtico original fue reemplazado en 1771 por un frontispicio diseñado por Ventura Rodríguez y ejecutado por F. Ibero.

La iglesia cuenta con ocho capillas; destaca la de la Soledad, joya renacentista donde se encuentra el sepulcro de Nicolás Sáez de Elola, compañero de Pizarro en Perú. Destacan también el retablo barroco del altar mayor y la pila donde fue bautizado Iñigo de Loyola.

## GARAI BATEKO UDAL HARRASKA - ANTIGUO LAVADERO MUNICIPAL




Garai batean elizari itsatsitako harresiaren zatia zegoen lekuan dago. 1842an eraiki zuten, Jose Javier Olazabalen laguntzaz, emakumeek leku duin bat izan zezaten beren lixibak egiteko. Eraikina, estiloz, neoklasikoa da eta estalia dago, erdian izan ezik; erdian, urmael handia dago, inguruko hogei uraska hornitzen dituena, eta uraska bakoitzak bere txorrota eta latsarria ditu. Fatxada nagusian, burdina forjatuz eginiko bi ate irekitzen dira eta, fatxadari itsatsita, hiru iturri daude.

Está situado en el lugar donde antiguamente se encontraba la parte de la muralla adosada a la iglesia. Fue construido en 1842 bajo el patrocinio de José Javier Olazábal, para ofrecer un lugar digno a las mujeres donde éstas pudiesen realizar sus coladas. El edificio, de estilo neoclásico, está cubierto salvo en el centro, donde se ubica la gran piscina que alimenta a las veinte albercas situadas a su alrededor, cada una con su grifo y su piedra de lavar. Adosadas a la fachada principal se sitúan tres fuentes, y en los laterales dos puertas de hierro forjado.

## ANTXIETA JAUREGIA - PALACIO DE ANTXIETA




Eraikin hau Iraugi bailaran dagoen arkitektura mudejarraren adibide bikain bat da. Jauregia XVI. mendean eraiki zuten, Juan de Antxietaren (1462-1523) aginduz. Juan de Antxieta gertuan dagoen Antxieta dorrean jaio zen, Urrestilla auzoan, eta konpositore errenazentista ospetsua eta Erregе Katolikoen kapera maisu izan zen. Eraikinaren elementurik aipagarriena fatxada nagusia da: behe solairua harlanduz egina dago eta gainerakoa adreiluz, dekorazio motibo aberatsak nabari dira, Gipuzkoan bakarra den konposizio eskema batekin.

Este edificio es un magnífico ejemplo de arquitectura mudéjar en el valle de Iraurgi. Su edificación en el siglo XVI fue ordenada por el afamado compositor renacentista Juan de Antxieta (1462-1523), maestro de capilla de los Reyes Católicos, nacido en la cercana torre de Antxieta, en el barrio de Urrestilla. Lo más destacable del edificio es la fachada principal, realizada con piedra de sillería en la planta baja y con ladrillo en el resto, donde muestra ricos motivos decorativos con un esquema compositivo único en Gipuzkoa.

## BASAZABAL JAUREGIA - PALACIO BASAZABAL




Azpeitiko jatorrizko eraikin zibilik zaharrena da, XIV-XV. mendeetan eraiki zuten. Hiri jauregi honen fatxada nagusia estilo gotiko nabarmenez egina dago eta soila da; baina, portaleko arku erdizirkular handiak eta leihateak adierazten digute arretaz eraikia dagoela. Arkua, alfiz batean kokatua, izugarrizko dobelez egina dago; eta leihateak, berriz, asko landuta daude. Eraikinak patio bat dauka erdian, Gipuzkoan batere ohikoa ez dena; eta arkupe dotore batzuk, ibai aldera irekia dagoen fatxadako galeriak eratzen dituzten arkupeak, alegia.

Gaur egun bisita daiteke, bertan baitaude herriko turismo bulegoa eta formazio gunea.

Está considerada como la edificación civil original más antigua de Azpeitia, ya que su construcción se remonta a los siglos XIV-XV. La fachada principal, de marcado sabor gótico es sencilla, aunque el gran arco de medio punto de la portada formado por descomunales dovelas y enmarcado por un alfiz, y los bien trabajados ventanales, denotan una construcción cuidada. Cuenta con un patio central poco común en Gipuzkoa y con unas bellas arcadas que forman las galerías de la fachada abierta hacia el río.

Hoy en día está abierto al público, ya que el palacio alberga la oficina de turismo y el área de formación del municipio.

## MAGDALENAKO OSPITALEA ETA BASELIZA
## HOSPITAL Y ERMITA DE LA MAGDALENA




1535ean, Parisen ikasketak amaitu eta gaixorik iritsi zen Azpeitira Loiolako Iñigo eta ostatu, bere familiaren dorrean ederki asko hartu ordez, legenardunentzako ospitale honetan hartu zuen, gaixo pobreenen ondoan. Esaten denez, leku honetan egon zen hiru hilabetetan zehar, predikatzen aritzen zen baseliza honetan, Elosiagako Ama Birjinaren baselizan alegia, eta Soreasuko San Sebastian parrokian; gaixo eta babesgabeentzako janari eta laguntza eske ere ibiltzen zen kaleetan. Gaur egun, garai bateko ospitale hura ignaziotarren interpretazio zentro gisa erabiltzen da.

En 1535, tras finalizar sus estudios en París, Iñigo de Loyola llega enfermo a Azpeitia y en vez de alojarse confortablemente en la torre de su familia, lo hace en este hospital y leprosería, junto a los enfermos más pobres. Según se dice, durante los tres meses que permaneció en el lugar solía predicar en esta ermita, en la de Ntra. Sra. de Elosiaga y en la parroquia de San Sebastián de Soreasu. También recorría la calles mendigando comida y auxilio para los enfermos y desamparados. Actualmente, el antiguo hospital es utilizado como centro de interpretación Ignaciano.

## ENPARAN DORRETXEA - CASA TORRE DE ENPARAN




1320an eraiki zuten, Euskadiko "Ahaide Nagusietako" oinaztarren familia indartsuenetako batek altxa zuen. 1456an, Enrique IV.a erregeak dorrearen goialdea eraisteko (moztеko) agindu zuen eta, 1535ean, mende bat beranduago, konpondu egin zuten. Dena den, 1750ean hartu zuen eraikinak gaur egun duen itxura; dorre zaharra jauregi bihurtu zen, jatorrizko dorreari bi gorputz atxiki zizkioten alde banatan eta garai hartan ohikoak ziren hainbat elementu barroko ipini zizkioten.

Sus orígenes se remontan a 1320. Fue levantada por una de las más poderosas familias de "Parientes Mayores" del País Vasco, perteneciente al bando de Oñaz. En 1456 Enrique IV ordenó que la parte superior de la torre fuese destruida (desmochada), siendo reparada en 1535, más de un siglo después. Pero será en 1750 cuando con el añadido de dos cuerpos adosados a los costados de la torre original y la inclusión de numerosos elementos barrocos propios de aquel momento, la vieja torre, convertida ya en palacio, adquiera su aspecto actual.

## TRENBIDEAREN MUSEOA - MUSEO DEL FERROCARRIL




Zumaia eta Zumarraga herriak lotzen zituen garai bateko Urolako trenaren geltokian dago. Europako tren bildumarik hoberenetakoa du: mota guztietako ibilgailuak ditu, hala nola, lurrun, diesel eta elektrizitate bidezko lokomotorak; hainbat automotor eta bagoi mota ere badaude. Museoak, 1926an inauguratu zen garai bateko trenbidearen tailer mekaniko interesgarriez gain, bi bilduma ditu: uniformeena bata eta trenbideetako erlojuena bestea. Erlojuen bilduma, gainera, munduko hoberenen artean dago.

Está situado en la antigua estación de ferrocarril del Urola, línea que unía las poblaciones de Zumaia y Zumarraga. Cuenta con una de las mejores colecciones ferroviarias de Europa, con vehículos de todo tipo como locomotoras de vapor, diésel y eléctricas; también cuenta con diversos tipos de automotores y vagones. Además de los interesantes talleres mecánicos de la antigua línea ferroviaria inaugurada en 1926, el museo expone una importante colección de uniformes y otra de relojes ferroviarios, esta última considerada como una de las mejores del mundo.

## ZERBITZU TURISTIKOAK • SERVICIOS TURÍSTICOS

### Museoak - Museos:
- ETXE SANTUA-LOIOLATARREN DORRETXEA
  SANTA CASA-CASA TORRE DE LOS LOYOLA
  www.santuariodeloyola.org - 943 02 50 00
- BURNIBIDEAREN EUSKAL MUSEOA
  MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL
  Julian Elorza kalea, 8
  www.bemfundazioa.org / 943 15 06 77
- EKOETXEA AZPEITIA. Egibar baserria, Loiola
  www.ingurugiroetxea.org / 943 812 448

### Hotelak - Hoteles:
- ARRUPE*. Loiolako Santutegia
  www.hotelarrupe.org / 943 02 50 26
  HSS00696
- LARRAÑAGA. Urrestilla bidea, z/g
  www.hotel-larranaga.com
  943 81 11 80 - HSS00640
- LOIOLA**. Loiolako Inazio Hiribidea, 47
  www.hotelloiola.com / 943 15 16 16
  HSS00607

### Nekazalturismoak - Agroturismos:
- TXANPARDIN. Loiolako Inazio Hiribidea
  www.txanpardin.com / 658 738 153
  XSS00121

### Pentsioak - Pensiones:
- OTOLA. Izarraitz auzoa 24 (Eskuzta)
  www.pensionotola.com / 943 81 18 07
  HSS00591

### Aterpetxeak - Albergues:
- XOXOTE Mendiko aterpetxea-Albergue de montaña. Xoxote mendia, Izarraitz
  www.xoxotekoaterpea.com / 943 58 10 07
  SS00525

### Garraioak - Transportes:
- www.lurraldebus.eus / 943 00 01 16
- La Guipuzcoana:
  www.laguipuzcoana.eus / 943 85 11 59
- Taxi Azpeitia: 943 81 13 07

### Turismo Bulegoak - Ofics. Turismo:
- **AZPEITIKO TURISMO BULEGOA**
  Basazabal jauregia - Enparan kalea, 18
  20730 Azpeitia - 688 87 48 61
  turismobulegoa@azpeitia.eus
- **LOIOLAKO TURISMO BULEGOA**
  Loiolako Santutegia, behea - 20730 Azpeitia
  943 15 18 78 - Fax: 943 81 64 74
  i-loiola@urolaturismo.net
  www.urolaturismo.eus



IKURRAK - SÍMBOLOS
Arrupe Hotela
Hotel Arrupe
Loiola Hotela
Hotel Loiola
Larrañaga Hotela
Hotel Larrañaga
Nekazalturismoa
Agroturismo
Otola Pentsioa
Pensión Otola
Informazioa
Información
Udaltzaingoa
Policía Municipal
Museoa
Museo
Aisialdirako gunea
Area recreativa
San Agustin
Kulturgunea
Zine/Antzerkia
Cine/Teatro
Taxiak
Taxis
Parking
Autobus geltokia
Parada autobús
Anbulategia
Ambulatorio
Posta
Correos
Inaziotar Bidea
Camino Ignaciano
H3
3 km
Egilea-Realiza:
Kaioa a.s.p. (943 19 20 30)